

Besollako Garbikundearen eliza, Ibargoitin, Nafarroako erromaniko landatarreko harribitxi txikietako bat da. Tenplu moduan, haren gaineko berriak XI. mendeaz geroztik daude, bertako jaunak Leireko monasterioari eman zionean. Edonola ere, mende bat geroago, XII. mendearen amaieran, jaso zuten egun ikus daitekeen eraikin hau.

Une hartan, aurrekaririk gabeko eraikuntza goraldia ari zen gertatzen Nafarroan. Erresuma osoan eraikitzen ari ziren tenplu berriak, Iruñeko katedral erromaniko desagertuaren eraginaren pean, hura baitzen harginen eredu eta eskola. Besollak ere eliza berritu zuen, harlanduzko eraikuntza berri moduan, habearte gangadun eta zirkuluerdi formako abside batekin. Azken batean, monumentaltasun grina eta hizkuntza erromanikoa herrixka txiki baten baliabide mugatuetara eta landa arloko maisuen trebetasunera egokitzea da, zeharka baino ez baitzuten ezagutzen katedralaren erreferentzia.

Artista hauek estilo pertsonalagoa arrandiaz erakusteko balio izan zuen eskultura-elementuetako bat izan zen. Lehen maisuak aldare nagusiaren aldea jaso zuen, landare-apaindura handiko kapitelak zituzten zutabeek kokatuta. Haren ondotik, beste maisu bat habeartea bururatzeaz arduratu zen, oso modu bitxi eta originalean konbinatutako landare, animalia eta giza motibo eskematikoak zituen atelada bat barnean hartuta. Emaitza gogoko izan zuen herriak, ondoren Gergetiainera joan baitzen lanera. Han, lana sinatu zuen eta, horrenbestez, haren izenaren berri izan genuen: Petrus.





Ayuntamiento de
**IBARGOITI**

Monreal Tel. 948 362 057
Urroz Tel. 948 338 127
Información: www.izaga.es
ibargoiti@izaga.infolocal.org


Nafarroako Gobernua · Gobierno de Navarra

**PARA ACCEDER AL INTERIOR ES IMPRESCINDIBLE CONTACTAR PREVIAMENTE CON EL AYUNTAMIENTO**

**BARNEAN SARTZEKO, EZINBESTEKOA DA AURRETIK HARREMANETAN JARTZEA UDALAREKIN**



# Vesolla / Besolla

La iglesia de la Purificación de Vesolla, en el valle de Ibargoiti, es una de las pequeñas joyas del románico rural navarro. Como templo hay noticias de su existencia desde el siglo XI, cuando el señor del lugar lo donó al monasterio de Leire. Pero no fue sino un siglo después, a fines del siglo XII, cuando se levantó el edificio que hoy vemos.

En aquellos momentos Navarra experimentaba un auge constructivo sin precedentes. Por todo el reino se erigían nuevos templos bajo la influencia de la desaparecida seo románica de Pamplona, modelo y escuela de canteros. También Vesolla renovó así su iglesia como una nueva fábrica de sillería con nave abovedada y ábside semicircular. Es, en definitiva, una adaptación del afán de monumentalidad y el lenguaje románico a los recursos limitados de una pequeña aldea y a la pericia de los maestros del mundo rural, que conocían sólo indirectamente el referente catedralicio.

Fue en los elementos escultóricos donde estos artífices hicieron gala de un estilo más personal. Un primer maestro erigió la cabecera, enmarcada por columnas con capiteles de voluminosa decoración vegetal. Tras él otro maestro se encargó de culminar la nave, incluyendo una portada con esquemáticos motivos vegetales, animales y humanos combinados de manera muy original. El resultado gustó, sin duda, pues después pasó a trabajar a Guerguitiáin, donde firmó su obra permitiéndonos conocer su nombre: Petrus.









Toda construcción histórica evoluciona en el tiempo, adaptándose a nuevos gustos. También la iglesia románica de Vesolla se ha enriquecido así a lo largo de los siglos, incorporando nuevos elementos que forman parte de su historia y la hacen única.

La renovación más importante del templo tuvo lugar en el siglo XVI. El interior se actualizó con una pinceladura mural que recrea grutescos y casetones clásicos en la cabecera. Allí se observa también la huella del pequeño retablo en el que se acomodó la talla gótica de la titular, rodeado por un friso con inscripción latina alusiva a la visita de Jesús a la humilde casa de santa Marta. La construcción de la sacristía terminó de configurar en esos mismos momentos el edificio que podemos contemplar en la actualidad.

Vesolla, que en 1702 dio nombre al marquesado otorgado a sus propietarios, no pudo resistir el éxodo rural y acabó por despoblarse en el siglo XX. Tras décadas de abandono, entre 2014 y 2015 el Gobierno de Navarra impulsó la recuperación del templo, acometiendo su restauración integral y liberándolo de edificios añadidos. Se le ha devuelto así el esplendor perdido, garantizando su conservación futura. Gracias a ello y al convenio establecido con la propiedad y el Ayuntamiento de Ibargoiti, hoy abre sus puertas al visitante.







Eraikin historiko orok bilakaera du denboran zehar, eta gustu berrietara egokitzen da. Hartara, Besollako eliza erromanikoa ere aberastu egin da mendeekin, eta bere historiaren zati diren eta bakan egiten duten elementu berriak barnean hartzen joan da.





Tenpluaren eraberritze garrantzitsuena XVI. mendean egin zen. Barnealdea eguneratzeko, horma-pintzeladura egin zen, gruteskoak eta kasetoi klasikoak birsortzen dituena aldare nagusiaren aldean. Han, era berean, erretaula txiki baten aztarna ikusten da, titularraren tailu gotikoa hartu zuena, friso batek inguratuta. Latinezko idazkuna zuen, Jesusek santa Martaren etxe apalera egin zuen bisitari aipamena egiten ziona. Sakristia eraikitzeak egun ikus dezakegun eraikina une horretan taxutzen amaitu zuen.

Besollak jabeei emandako markeserriari izena eman zion 1702an; gero, ezin izan zion aurre egin baserriaren exodoari eta XX. mendean jendegabetu egin zen. Hainbat hamarkadatan utzita egon eta gero, 2014 eta 2015 artean, Nafarroako Gobernuak tenplua berreskuratzea bultzatu zuen, zaharberritze integralari ekinda eta eraikin erantsiak kenduta. Hartara, galdutako distira eta bikaintasuna itzuli zaio, eta etorkizunean irautea bermatu da. Horri esker, eta jabeekin eta Ibargoitiko Udalarekin ezarritako hitzarmenari esker, gaur ateak zabalduko dizkio bisitariari.

